



EBAZPENA, 2021EKO URTARRILAREN 25EKOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO MAISU-MAISTREN KIDEGOKO LANGILE FUNTZIONARIOEN ESTATU-MAILAKO 2020/2021EKO LEKUALDATZE LEHIAKETAN ONARTUTAKO PARTE-HARTZAILEEN, MEREZIMENDUEN BAREMOAREKIN, ETA KANPOAN UTZITAKO PARTE-HARTZAILEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA

Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 22ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2020ko azaroaren 4a),

EBATZI DUT:

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko administraziooko Maisu-maistren kidegoko langile funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda argitaratzea, Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 22ko Aginduaren I. eranskinean zehaztutako baremoaren arabera emandako puntuazioa adieraziz.

Bigarrena.- Argitara ematea aipatutako kidegoetako karrerako langile funtzionarioentzako estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartuak izan ez diren partehartzaileen behin-behineko zerrenda. Onartu ez izanaren arrazoia adieraziko da.

Hirugarrena.- Lehiatzaileek zuzendu ahal dituzten akats formalak dituzten merezimenduen zerrenda argitara ematea.

Laugarrena.- Epe bat irekitzea, 2021eko urtarrilaren 27tik otsailak 9ra, biak barne, erreklamazioak egiteko eta zuzengarri diren akatsak zuzentzeko.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 25a